

## Gorbeiaiko parke naturalak 25 urte ospatuko ditu datorren larunbatean, jai handi batekin

Natura ibilbide gidatuak, Gerra Zibil garaiko lubakiak ikusteko bisita Txintxularran, ardi latxen artilea lantzeko familientzako lantegiak, basoan umeak jolasteko gunea eta pintxo-pote herrikoia dira, besteak beste, Sarriko parketxean larunbatean, hilak 14, antolatu diren jarduerak

**Gasteiz, 2019ko irailaren 9a.** Badira 25 urte Gorbeia parke natural adierazi zela, eta Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetzarekin batera, ospakizun handia egin nahi izan du. Hori dela eta, herritarrak gonbidatzen ditu urteurrena ospatzeko Sarriko parketxean larunbatean, hilak 14, antolatu den jai handian egingo diren jardueretan parte hartzera.

Basoek, larreek, txilardiek, padurek, hezeguneez, ibaiek, leizeek eta harkaitzek osatzen dute Araba eta Bizkaiaren artean dagoen parke natural ospetsu hau. Euskal Autonomia Erkidegoko gune natural babesturik handiena da, 20.000 hektarea baino gehiago baititu. Bere tontor enblematikoa, lurralde eta belaunaldi arteko lotura dena, Euskal Herriko mendien erreferente handi bat da, baina bere magaletan ere biodibertsitate nabarmena dago, bai eta elkarrekin bizi eta bere balio naturalak babesten jakin duten jarduerak ere, hala nola abeltzaintza, larratzea eta nekazaritza.

Kolektibo guzti horiek ere izango dute bere ordezkariak datorren larunbatean. Horrela, ardi latxen artilea lantzen ikasteko lantegi bat egingo da eta ‘Gorbeiaiko Artzaintza Iragana, orainaldia eta milaka urteko lanbideko etorkizuna’ dokumentalaren aurrerakina estreinatuko da, Gorbeiaiko artzainak bertan izango direla, bertaratzen direnei euren jardueraren berri emateko prest.

Ingurumen hezkuntza ere egongo da presente hilaren 14ko egitarauan; izan ere, jardunaldia hasteko proposamen interesgarri bat egongo da: ibilbide naturalistikoa Arabako Natura Institutuko adituek gidatua. Primerako aukera izango da Gorbeiaiko parke naturalean gordetzen diren flora eta faunako sekretuak ezagutzeko.

Aldi berean, jardunaldiak ibilbide etnografikoa izango du, non berrikusi ahalko diren tontor mitiko horren itzalean gertatutako une garrantzitsuak eta Gerra Zibileko lubaki zaharrak bisitatu.

## **Denboraren kapsula, 2044ra arte**

Halaber, Gorbeiarako garrantzitsuenak diren kolektiboetako ordezkariak denboraren kapsula bat lurperatuko dute, azken 25 urteak gogoratzeko. Bertan objektu sinbolikoak sartuko dituzte, 2044ra arte gordeta egongo direnak.

Etnobotanikako lantegi bat, gure inguruko landareen ezaugarri medizinal, gastronomiko eta kosmetikoak ezagutzeko, eta umeentzako joko gune handi bat basoan izango dira Gorbeia 25. urteurreneko programa osatzeko, eta amaiera emateko pintxo-pote herrikoia izango da, bertako produktuak eskainiz.

## **Izena ematea linean**

Jarduera gidatuetarako plaza mugatuak daude eta aurretik eman behar da izena. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak gune bat gaitu du araba.eus web orrian, jarduera bakoitzari buruzko argibideak jasota eta jardueretan izena emateko aukerarekin.

Hauxe da argibideak eta izena emateko lotune zuzena:  
<https://web.araba.eus/eu/gorbeia-25-urteurrena>